

MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUETAN ERROTULUAK EUSKARAZ IPINTZEKO 2018. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA:	EUSKARA SAILA
INSTRUKTOREA:	Euskara zerbitziburua
BALORAZIO BATZORDEA:	Juan Carlos Agirre Santa Maria, Benito Ibarrolaza Munitiz, Aingeru Astui Zarraga, Aritz Abaroa Cantuariense, Alazne Zumeta Garro, Idoia Platas Arenaza, Jon Goikolea Ojinaga, Sergio Ugalde Zabala.
XEDEA:	Merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko diru laguntza
KODEA:	Espediente zk.: Euskara Sailaren 81-12
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	2018ko aurrekontuan: 2.016,00 €. 01400-33540-4710000 partidan.
HELBURUA:	<ul style="list-style-type: none"> - Merkataritza eta enpresa arloan euskara erabiltzea sustatzea - Establezimenduetako identifikazio-ikurrak euskaraz jar daitezen laguntzea, udalerriko hizkuntza paisajea euskaraz egon dadin
EPEA:	Eskaerak aurkezteko epea: deialdia argitaratzen denetik aurrera, 2018 amaitu arte.
BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK:	<ul style="list-style-type: none"> - Errotulua euskaraz idatzita egotea. - Errotuluaren testua zuzen idatzita egotea. Hala ez balitz, zuzentzeko aukera izango du eskatzaileak eta frogagiria aurkeztuta, diru laguntza jasotzeko modua izango du. - Hala badagokio, hirigintzako lizentzia eskatuta izatea. - Elementu bat baino gehiago ipini gura badira, bakoitzari dagozkion agiriak aurkeztea
ESKATZAILEAK:	<p>Bermeon kokatuta dauden merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresa txikietako titularrek eskatu ahal izango dute diru laguntza.</p> <p>Diru laguntzaren onuradunek, errotulua ipintzeagatik hirigintzako lizentzia eskatu behar duten kasuetan, hoberia izango dute, tasaren %75ekoa.</p>
DIRUZ LAGUNGARRIA DEN KONTZEPTUA PROGRAMARA:	<p><u>Lagunduko diren elementuak:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1- Establezimenduetako kanpoko errotulua 2- Autoetako errotulazioa 3- Toldoetako errotulazioa 4- Binilozko errotuluak

Diruz lagunduko ez direnak:

- 1- Finantza erakunde, hipermerkatu eta establezimendu-kate handietako errotuluak.
- 2- Izen propio, toponimo eta abizenak bakarrik adierazten dituzten errotuluak.
- 3- Errotuluaren gastua bakarrik lagunduko da, ez diseinua, ez ipintzearen kostua, ezta diseinuaren bestelako osagaiak ere.
- 4- Bermeoko Udalagaz zorra daukana.

Gehienez eskura daitekeen diru-kopurua 300 €koa izango da. Zenbateko horretatik beherako eskaririk balego, kostuaren %75 eskura daiteke.

**PROZEDURA ETA
AURKEZTU
BEHARREKO
DOKUMENTAZIOA:**

Ebazteko prozedura: Konkurrentzia ez lehiakorra.

Baldintzak betetzen dituzten eskariak Euskara zinegotzi delegatuaren dekretu bitartez onetsiko dira, errotulua ipinita dagoela frogatzeko argazkia aurkeztu eta gehienez, hamabost eguneko epean.

Deialdi honetan aurreikusi ez direnak Balorazio- Batzordeak aztertu eta ebatziko ditu, diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeari jarraiki.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera-orria beteta
- Errotuluaren izena jasotzen duen agiria
- Jatorrizko faktura
- Kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu)
- Ipinitako errotuluaren argazkia

**ERLAZIONATUTAKO
AGIRIAK:**